

UR GARBIA ETA SANEAMENDUA: ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK?

Bizitzako elementu nagusia da ura; funtsezkoa da pertsonentzat eta gainerako izaki bizidunentzat, eta, zalantzarik gabe, oinarritzko baliabidea da mundu osoko gizarte eta kulturentzat. Baina, zer dakigu urari buruz? Zenbat pertsonak eskuratu dezakete baliabide hori? Ondo zaintzen ari al gara ondasun unibertsal hori?

Nazio Batuen Erakundearen arabera, ur-eskasiak munduko biztanleriaren % 40ri baino gehiagori eragiten dio, eta ehuneko horrek gora egin dezake.

Ur zikina ezin da garbitu; horregatik, gure erakundeentzat funtsezkoa da **ura babestearen eta zaintzearen** garrantzia kontzientziatzea, ez baita kontsumorako produktu bat, baizik eta funtsezko ondasun natural bat etorkizuneko belaunaldientzat eta gure planetarentzat. Zaintzea zure esku dago.



URA ESKURA IZATEA ETA BERE KUDEAKETA JASANGARRIA ETA SANEAMENDUA BERMATZEA PERTSONA GUZTIENTZAT.



UR ZIKINA EZIN DA GARBITU

(Afrikar esaera zaharra)

Zaintzea zure esku dago



URA ESKURA IZATEKO AUKERA

Ura, saneamendua eta higiena izateko aukera giza eskubidea da; hala ere, milioika pertsonak zailtasun handiak dituzte egunero zerbitzu oinarrikoenak eskuratzeko.

Munduko **10** pertsonatik **3k** ez dute edateko ura eskuratzeko aukerarik.

Bost urtetik beherako **297.000** haur hiltzen dira urtero edateko urrik, saneamendurik eta higienerik ez izatearekin lotutako beherakoaren ondorioz.

Munduan, **1.800** milioi pertsonak, gutxi gorabehera, hondakin beltzez kutsatuta dagoen ur iturri bat erabiltzen dute, edateko ur gisa.

*NBEren datuak

GENERO-BERDINTASUNA ETA GENERO-JUSTIZIA

Herrialde askotan, emakumeek ekartzen dute ura etxera, eskolatzearan edo ordaindutako lanaren kaltetan gehienetan. Zama astunak etengabe eta distantzia luzeetan garraiatzeak osasun-arrisku larriak dakartza. Gauza bera gertatzen da ur eta saneamendu faltarekin; izan ere, etxeko kideak gaixotzen direnean, emakumeek hartzen dute beraien gain pertsonen zaintza.

Urik ez duten etxeen **% 80an**, emakumeak eta neskak arduratzen dira ura jasotzeaz eta etxera eramateaz.

1990 eta 2010 artean, **2.000** milioi pertsonak izan dute edateko ura eskuratzeko aukera.

Hala ere, emakumeek **16** milioi ordu ematen dituzte egunean ura bilatzen Sahara hegoaldeko 25 herrialdeetan.

*NBEren datuak, emakumeak

URA ONDASUN UNIBERTSALA AL DA?

Ura eskuratzeko eskubidea, eskubide unibertsala da. Hala ere, txorrotako ura produktu komertzial pribatuztat hartzen da, eta espekulazioarekin lotuta dago. Horrek esan nahi du egoera zaurgarrian dauden pertsona askok ezin dutela ordaindu ura eskuratu ahal izateko.

Multinazional handiek beren onura ekonomikoari ematen diote lehentasuna baliabideen aurretik, eta, batzuetan, akuiferoak gehiegi ustiatzen dituzte eta hondakinak itsasora isurtzen dituzte.

Enpresa multinazional handiek urtero **100** milioi litro ur baino gehiago erazten dituzte zabor-jana ekoizteko.

Etorkizuneko gerren arrazoi nagusia ur geza eskuratzeko iturriak kontrolatzea izango dela aurreikusten da.

URAREN PRINTZIBIO DEMOKRATIKOAK

- Ura naturaren oparia da.
- Ura funtsezkoa da bizitzarako.
- Bizitza oro uraren bidez lotuta dago.
- Oinarriko beharretara zuzendutako urak doakoa izan behar du.
- Ura mugatua da, eta agortu egin daiteke.
- Ura zaindu egin behar da.
- Ura guztion ondasuna da.
- Inork ez du ura xahutzeko eskubiderik.
- Ez dago ura ordezkatzeko duen ezer.

KEINU BAKOITZAK BERE BALIOA DU

Uraren kultura berri bat behar dugu, aurreztean, aprobezamenetan eta kudeaketaren optimizazioan oinarritutakoa.



Dutxa laburrak egitea. Bainatu beharrean dutxa laburrak eginez ur asko aurreztuko dugu.



Txorrota ixtea. Hortzak garbitzen ditugunean edo gorputza xaboiz igurzten dugunean, txorrota ixtea komeni da, ura ez xahutzeko.



Komunera zaborrik ez botatzea. Aintzirak eta ibaiak kutsatzea saihesten baduzu, ingurumena babestea aukeratzen duzu.



Ura berrerabiltzea. Ura berrerabili egin dezakegu, adibidez, fruta garbitzeko erabilgaitako ura landareak ureztatzeko birziklatuz.



Garbigailua eta ontzi-garbigailua. Garbigailua edo ontzi-garbigailua jarri behar dituzunean, ziurtatu guztiz kargatuta daudela.



Bigarren eskuko arropa erostea. 2700 litro baino gehiago behar dira kotoizko kamiseta bat egiteko.



Elikagai ultra-prozesatuak saihestea. Patata frijituen poltsa bat ekoizteko 185 litro ur baino gehiago behar dira.



Plastikozko produktuak ez erabiltzea. Kalkuluen arabera, 250.000 tona plastiko baino gehiago daude itsasoan flotatzen. Segundo bakoitzean, 200 kilo zabor isurtzen dira ozeanoetara. Espainiak 126 tona plastiko botatzen ditu egunero itsaso eta ozeanoetara.

Ura zaintzeko beste zer modu bururatzen zaizkizu?